

TOLOSA ▶

la bi kilo  
txiste duen  
liburua

Kike Amonarrizek  
kaleratu berri du ▶ 3



## Rodrigo-Olveira, Iradi-Lorenzo eta Niko Artola, frontenisen onenak

**BERROBI** ▶ Artola berrobotarrak bederatzigarren txapela lortu du jarraian; final lehiatuak izan dira ▶ 6



Frontenis txapelketako irabazleak eta saritu guztiak bere sariekin atzo arratsaldean Berrobin. OLAIJA ESKITXABEL



IMANOL GARCIA

Laskurainen bodegoiak  
herriko ostatuan zintzilik

**HERNIALDE** ▶ Margolari bergararrak koadro «figuratibo errealistik» egiten ditu; 13 lan ditu ikusgai hilaren amaiera bitarte ▶ 7

TOLOSA ▶

Inauteri  
doinuak  
grabatu  
dituzte

Et Incarnatus  
orkestrak egin du ▶ 2

MIKEL ARRUBARRENA ▶ FUTBOLARIA

«Gustura jarraituko nuke  
Athleticen, bestela talde  
bila hasi beharko nuke»

Athletic B-n ari da tolosarra eta 2. B  
Mailako goleatzailearik onena da ▶ 5



LEIRE MONTES

TOLOSA ▶

Hamasei  
urte soinu  
tresnak  
egiten

Jose Manuel Agirre  
dultzainaria da ▶ 4

MUSIKA ▶



**Et Incarnatus.** Gazte osatutako ganbara orkestra gaztea, dozena bat lagunez osatua, denak gipuzkoarrak, Lerman Nieves kontrabaxujole venezuelarra izan ezik. Estilo desberdinetako 22 diskotan hartu du parte: Benito Lertxundi, Imanol, Iñaki Salvador, La Buena Vida, zinema, abesbatzak... J.SAIZAR



**Juantxo.** Pianojole Benito Lertxundi, Maddi Oihenart, Josebo Goia-Arribere eta beste talde batzuekin jazz, abesbatzak eta saltsa nahastuz, irakasle da Donostiako Musika Eskolan eta moldaketa ugari egin ditu lehendik ere. Oraingo diskoan bost pieza moldatu ditu. BERRIA



**Xabier.** Oskorri taldean biolina jotzeagatik ezaguna, oraingo honetan biolina jotzeaz gain, Inauteri pieza baten moldaketa ere egin du: Alboradako habanera. J.SAIZAR



**Miren.** Herbeheretan ari da ikasten beka batekin familiako gazteena, baina Et Incarnatusen grabaketa honetarako ez du hutsik egin nahi izan. EGOEn eta JONDEN ere partaide izan da. J.SAIZAR



**Migel.** Donosti Ereski eta Sustraien Ahotsa abesbatzak zuzentzen ditu gaur egun, ganbara orkestra honetaz gain. Esperientzia luzea du zuzendari gisa: Tolosako Santa Maria parrokiako kapera maisu, Eskifaia, Zegama, Txintxarri txiki abesbatzak... J. SAIZAR

# ‘Troika’ grabatu du Et Incarnatus orkestrak

Migel, Juantxo, Xabier eta Miren Zeberio anai-arrebak dira partaide proiektuan; urtarrilean aterako da kalera

JOXEMI SAIZAR

Azaroko bi asteburutan Elkar disketxeko estudioetan sartu eta *Troika* izeneko diskoa grabatu du Et Incarnatus orkestrak. Disko askoren grabaketan hartu du, baina bere errepertorioarekin —Inauterietako doinueta oinarrituta— grabatzen duen lehena da.

Ganbara orkestra honetan Tolosako familia batek pisu

handia dauka, Zeberiotarrek. Migel da zuzendaria eta Xabier eta Miren biolinjoleak partaide. Gainera disko honetan Juantxok ere paper garrantzitsua izan du, berak moldatu baititu doinu ezagun batzuk.

Grabaketa saioak goiz eta arratsaldez luzatu dira. Migel zuzendariaren gain, Juantxok kontrol mahaiko gelatik ere aholkuak ematen zizkien. «Gogorra izan da, ordu asko izan

dira», adierazi dio HITZARI Migel Zeberioi. «Lerman Nieves venezuelarra izanik, perkusio tresnekin ikutu berezia eman die habanerei», erantsi du. Moldaketak nor egin dituen ere nabari dela dio zuzendariak: «Juantxoren estilo bat dute, besteek berea. Desberdinenena Eguirenena da. Horrek ere aberastasuna ematen dio».

Juantxo Zeberioi 22. eta 5. habanerak, *Habanerarekin jo-*

*lasean, Paquita la vergaresa* eta *Troika* moldatu ditu eta Xabierrek Alboradako habanera. Txema Garcesen *Pello ziri-ziri* piezaren moldaketa bat ere sartu dute grabaketan. Hauek gain, Jose Urrejolaren *Gal-tzaundi* eta Jesus Eguirenen *Segurako alborada* grabatu dituzte. Azkenik pieza desberdinen nahasketa bat ere grabatu dute. Hamaika kanta guztira. *Troikari* letra berezia asmatu dio Karlos Linazasoro idazleak, eta diskoaren hitzaurrea Joxe Mari Iturralde idazleak eta Xanti Eraso Artelekuko zuzendariak egin dute.

Harizko soinu tresnen musikaz gain, beste laguntzaile batzuk ere badira diskoan: Tolosako Ainhoa Arteta sopranoa, Udal Txistulari Banda, Oskorriko Anton Latxa eta Natxo de Felipe, Mikel Andueza saxofonjolea, Erlantz Fernandez tron-

petajolea... Azala Tomas Hernandez Mendizabalek egin du, urtero Inauterietarako egin duen kartelen estilokoa.

Diskoa Errege ondoren aterako da kalera eta Tolosan aurkezpen kontzertua eskaintzeko asmoa dute, Inauteri aurretik.

1996an sortua, orain arte musika klasiko eta modernoko hainbat musikari eta talde ezagunen grabaketetan hartu du parte Et Incarnatus, 22 grabaketa guztira: Iñaki Salvador, Gonzalo Tejada, Benito Lertxundi, La Buena Vida, Mikel Erentxun, Imanol, Kanta Cantemus abesbatza... Hainbeste talde eta estilo desberdin uztartu dituen kasu bakarrenetakoa izango da Euskal Herri osoan. Zuzeneko emanaldi gutxi dituzte. Zinemako musikan ere badute esperientzia, Juanma Bajo Ulloren *Fragil* filmeko musika jarri baitute.

TOLOSA ▶ KULTURA



Estitxu Eizagirre *Argiako* kazetaria eta Kike Amonarriz *888 txiste* liburuaren aurkezpenean. KARLOS CORBELLA/ARGIA

# 888 aldiz barre egiteko

«la bi kilo txiste» bildu ditu Kike Amonarrizek bere txiste liburu berriari;  
24 urte eta mila zenbaki darama 'Argia'-n txisteak idazten

JOXEMI SAIZAR

Lehenengo astean aurkeztu zuten Lasarteko Jalgi kafetegian Kike Amonarriz azken liburua, *888 Txiste*.

«Umorea oso gauza pertsonala da, lurruna bezala, eta Kikeren umorea, Kike bezala, da zirikatzailea, baina min ematera sekula iristen ez dena» esanez hasi zen Estitxu Eizagirre *Argiako* kazetariari aurkezpena. Erredakzioan, egilea sartzen ikusi ahala, «neuronak azeleratzen» zaizkiola erantsi zuten, «ez dakizulako nondik aterako zaizun, baina era berean segurtantzia izaten duzu ez zaituela gaizki sentitu araziko».

Egileak bezala, liburuak bi alde dituela esan zuen: «Bata umore klabea, agerikoena, eta bestea serio egindako lanarena». Formaz pisuzko liburua da, eta txisteen «balio pedagogiko eta terapeutikoak oso serioak» direla aipatu zuen: «Euskararen oso erregistro desberdinak lantzen ditu; euskararen beraren grazia erakusten du: txiste eta hitz-joko batzuk ezin dira itzuli; liburuan irakurritako txisteak besteei kontatzerakoan ahozkotasuna lantzen da; eta beste askoren artean, azkena nabarmendu beharreko balioa terapeutikoa da: egunero barre dosi bat beharrezkoa zaigulako osasun mentala zaintzeko».

888 txiste ez da txantxa, («ia

kilo bat txiste dira»), eta «(sormen eta bilketa lan hau) asko eskertu zion Eizagirrek, «eguneroko bizitzan gertatzen diren pasadizoak liburuan betirako gordetzeagatik». Bukatzeko, «agortezina dirudien harrobitik perlak ateratzen» jarraitzeko animatu zuen tolosarra.

## Jardunik luzeena

*Argiako* txistegintza «nire bizitza profesionalean, egilea sarzeten ikusi ahala, «neuronak azeleratzen» zaizkiola erantsi zuten, «ez dakizulako nondik aterako zaizun, baina era berean segurtantzia izaten duzu ez zaituela gaizki sentitu araziko».

Txistea, beti maite izan duen generoa da. «Kultura guztietan eta denbora guztietan ezagutu izan da txistea; greziarretatik hasi eta gaur egungo gizarte-raino», erantsi zuen.

Txisteak bere laburrean, «gizarte bizitzaren gora beherarik barrukoena azaleratzeko bide» izan direla aipatu zuen. Herritarren beldurrak eta kritikak, defentsa bideak eta erasoak, tabuak eta ametsak, askotan txisteen bidez kaleratu dira bere iritziz: «Txisteak tresna diren neurrian arrazismoaren sostengu edo autoritarismoaren kritika bihur daitezke,



Kike Amonarriz. K. CORBELLA/ARGIA

araua hausten duenaren zigor edo tabua puskatzeko harri».

Egoerak onartzeko edo iraultzera bultzatzeko txisteak egin daitezkeela dio; «arau inplizitoak ipurdi agerian utziz edo arauak hausten dituztenen aurkako sorgin ehiza antolatuz».

Horregatik, lehen kolpea barrea edo irribarrea eragiteaz gain, bigarren irakurketan zer pentsa ematen duten txisteak ditu maite; «errealitate gordinaren aurkako antidoto bihurtzen direnak, gozamenari desosotasun punttu bat erasten diotenak».

Bihar 19:00etan Bonberenean izango da Amonarriz Asisoren batera *Euskara lardas-katzeko manierak* hitzaldi umoretsua ematen.

## Barre alde askotatik

Jendearen kontura baino, barre jendearekin eta jendilajearen kontura egin nahi duela dio egileak: «Ezin-besteak iruditu zait nire buruari barre eginez idaztea liburua, alde askotatik»:

- «Tolosarra naizelako. Tolosa bere garaian Gipuzkoako hiriburua eta gaur egun, Inauteriei esker Euskal Herriko Irriburu. Pasadizo eta kontakizun asko Tolosan kokatu ditut. Batzuk hala gertatuak dira, eta beste asko, gerta zitezkeen bertan».

- «Euskalduna naizelako. Euskaraz egingo dugu barre, eta kasu honetan, baita euskararen kontura ere».

- «Gizona naizelako. Oso kolore, eta taju desberdina hartzen dute txisteek gizonen ala emakumeen kontutara; edo pertsonaiek gizonen kontura edo emakumeen kontura izanda. Genroen arteko jolasa eta txisteen barne protagonisten rol aldaketarekin jolastu nahi izan dut».

- «Pertsona eta pertsonaje ezagunak azaltzen dira liburuan. Gureak eta kanpokoak; gutarrak eta etsaiak. Norbera non kokatzen den egin behar harko du aukeraketa... eta barre».

TOLOSA ▶

## Gaur, meza abestia Santa Maria parrokian

Maria Sortzez Garbia eguna dela eta, gaur 11:00etan meza berezia izango da Santa Maria parrokian, kapera musikak Eduardo Mokoroaren *In honorem S. Joannis Baptistae* meza eskainiko baitu. Lau ahots nahasi, herri abesbatza, organoa eta orkestrarako obra da.

TOLOSA ▶

## Gaur, Txistulari Bandaren kontzertu berezia

Santa Maria parrokiako meza nagusiaren ondoren —eguerdi aldera— kontzertu berezia eskainiko du Udala Txistulari Bandak plaza Zaharrean, udaletxeko arkupe-tan Iñaki Letamendiaren zuzendaritzapean.

ELDUAIN ▶

## Egues presoa bisitatzen ez diete utzi hiru lagun

Castello-ko kartzelan dagoen Ana Belen Egues preso elduaindarra asteburuan bisitatu behar zuten Tolosaldeko hiru lagunek ezin izan dute bisitatu. Horretarako baimean duten hamar pertsonen zerrendan zeuden, baina hara joandakoan ez zieten utzi.

TOLOSA ▶

## Bihar, DVDaren aurkezpena Leidorren

Airetik ateratak Tolosaldeko irudiak biltzen dituen DVDa bihar 20:00etan aurkeztuko du Leidor zineman Tolosa 750. urteurrena Fundazioak. Joan ahal izateko, gonbidapenak hartu behar dira Kultur Etxean.

TOLOSA ▶

## 'Memories of murder', bihar zine-klubean

Bony Joon-ho zuzendariaren *Memories of murder* filma emango dute bihar 21:30ean Leidor aretoan zine-klubean barruan.

MUSIKA ▶

# Dultzainarekin sukalderaino

Txistuarekin hasi, dultzainarekin ezaguna egin eta azken 16 urteotan soinu tresnak egiten dihardu Jose Manuel Agirrek, afizioa ofizioa bihurtuz

JOXEMI SAIZAR

**M**usikari «eta gero artisa» dela dio Jose Manuel Agirre tolosarrak. Orain ez, baina txikitik, Miguel Martínez de Lezea txistulariarekin txistu ikasten hasi zenean, danbolinaren partzea jarri zen, txistua garbitzen, danbolina montatzen, tentsatzen... erakusten zitelako gogoratzen du. Gaur egun soinu tresnak egin eta konpotzen aritzearen oinarria hor kokatzen du Agirrek. «Guk cola-cao pote batekin eta regla batekin ikasi genuen danbolina jotzen. Orain diru gehiago dago eta edozein ume mukizuk hiru danbolin ditu ikasteko», dio.

Dultzainarekin beranduago hasi zen, Udaberri dantzari taldean ari zela, bere kontura. Material gutxi zegoen eta batzuen eta besteen proba berriak probatu zituzten. Danborra egiten gero eta jende gutxiago zegoela ikusita, pixkanaka langintza horretan hasi zen. «Afizioa ofizio bihurtu nuen. Duela 16 urte hasi nintzen horretan», dio. Dultzaina, txistu eta hauen laguntzaile diren perkusioko tresnak egiten eta konpontzen aritzen da batez ere: danborrak, danbolinak, ttuntunak, atabalak, txirulak, dultzainak, txalapartak... Duela zortzi bat urte panderoak egiten hasi zen eta orain koloretako panderoak egiten ditu eta estima handia omen dute, baina ez omen du ezer asmatu: «Segurako elizan, pulpitoaren azpian horrelakoak agertu ziren». Dantzari taldeentzako ere material ugari egiten du (kapitain makilak, dantzarietarako makilak, uztaiak, brokelak...) «Lehen aroterek egiten zituzten material horiek, baina orain inork ez du egiten». Danborradetarako ere lan asko egiten du.



Jose Manuel Agirre bere tailerrean, egiten dituen panderoen aurrean. JOXEMI SAIZAR

## Materiala bilatzeko zailtasuna

Soinu tresna asko kanpoan egiten omen dituzte: Valentzia, Galizia, Taiwan, Txina... Erabiltzen dituen materialak lortzea gero eta zailagoa dela dio Agirrek. Kalitate oneko antxume larrua, sokak, egurra... Kurbatzerakoan egurra ez apurtzea bilatu behar du. Ardi larrua baztertu egiten du, koipearengatik hezeagoa delako eta gehiago aldatzen delako. Pago egurra erabiltzen du. Panderoak egiteko orain urkia ere bai, sendoagoa delako. Intxaurra ere bai. Lizartzan lortzen du egurra. Antxume larrua Palencia eta Valentiako kurtidoretatik lortzen du. Soka sintetikoek natulararen mugimendua eta kalitatez ez dutela dio. Kalamuzko sokak lortzea gero eta

zailagoa dela dio, horrelako fabrika asko itxi eta materialak garestitu egin baitira.

Tresnak montatzen Martin Peñagarikanok laguntzen dio. Emazteak eta alabek ere laguntzen diote. Prozesuaren zati bat aurreratzeko moldeak eta egiten dituzte, baina beti azken ikutua eman behar diote. Kalitateko instrumentuak eskaintzen dituela dio. Lanak pilatuta, lan batzuk banatu egin ditu azkenaldian eta margotu adibidez, beste batek egiten dizkio instrumentuak.

Salmentarena beste mundu bat da. «Orain arte azoka ugari in ibili naiz, baina gero eta gutxiago. Dultzaina jotzetik nahiko ezaguna naiz eta hortik

etortzen zait jende asko. Denbretan ere saltzen ditut soinu tresnak, hemen inguruan eta baita Iruñean, Zaragozan, Barzelonan...». Ospea ahoz aho pasatu da eta Espainia eta beste herrialde batzuetatik ere izan ditu eskaerak.

Tarteka soinu tresnekin proba berriak egiten aritzea tokatzen zaio. «Grabaketa batzuetarako soinu berezia edo bilatzen dute eta deitu egiten didate instrumentu bereziren bat egiteko», dio. Ohiko bi dultzainari eta danborrariaz gain, talde handiagoetan ere aritu izan da Agirre, dultzainari gehiago eta perkusioko bonbo eta txapekin. Baita Incansables txarangarekin ere.



**JOSE MANUEL AGIRRE**  
DULTZAINARIA-TRESNA EGILEA

«Cola-cao pote batekin eta regla batekin ikasi genuen danbolina jotzen; oraingo umeek hiru danbolin dituzte»

«Gauetan lehen gehiago jotzen genuen; orain batez ere eguneko lana izaten da dultzainariena»

## Dultzainajole ezaguna

Ezaguna da Euskal Herri osoan dultzaina jotzeagatik. Urte dezente darama horretan herriko jaietan. Klaseak ere eman izan ditu. «Urteko santorala ondo ezagutzen dugu. Udan batez ere, baina neguan ere jai ugari izaten gara jotzen». Tafallan 25 urte daramatza jotzen, Goizuetan 27-28 urte, Zumaietan eta Ordizian asko, Baionan 30 urte, Iruñean 16... Batez ere Gipuzkoan eta Iparraldean aritzen dira asko, baina tarteka kanpora ere joan dira. «Dultzaina ez da eszenatikoko instrumentua, etxekoa da, sukalderaino sartzeko balio du herri txikitetan». Festa giroa urte batzuetan aldatu egin dela dio: «Gauetan lehen gehiago jotzen genuen. Orain batez ere eguneko lana izaten da dultzainariena: dianak, eguerdian kalejira, arratsaldean erraldoi eta buruhandiek, erromeria...» Hala ere gaur egun musika infribaloratuta dagoela dio.

Dultzainarekin egindako lana jasotzeko disko bat grabatu zuten duela urte gutxi.

## Dultzaina eta Tolosaldea

Tolosaldean Udaberri dantzari taldearen inguruan berpiztu zen dultzaina. 60. hamarkadan hasi ziren Agirre eta beste batzuk —Jose Ramon Garikano, Xabier Zelaia, Letamendia anaiak, Juan Mari Urruzola, Jose Ramon Zipitria, Iñaki Salbador...— bere kontura ikasten. Horretan jarraitu eta gaur egun inguruan jarraitzen duten bizpahiru taldeek horien gain oinarria: Agirre berearekin, Udal Musika Eskolan

Salbadorrekin ikasten, Udaberri dantzari taldean Urruzolarekin...

Baina gerra aurretik dultzainaririk ba ote zen hemen inguruan? Lehen aipatutakoak hasi arte Nafarroako, Bizkaiko edo Gipuzkoako beste leku batzuetako instrumentua zela usteko genuen. Agirrek datu argigarriak eman dizkigu: «Gerra aurretik Amarozen auzoan Caminostarrak aritzen ziren. Montetxan ere bazen beste

bat, Zizurkilen Bereziartu abizeneko bat... Estanislao Urruzola *Uxola* zena aritu zen hori aztertzen. Dirudienez, Gipuzkoan Nafarroan baino dultzainari gehiago zegoen garai batean».

Dultzaina jotzen zutenek diru sarrera garrantzitsutzat zuten eta familiako kideei bazarrik erakusten zieten jotzen. Partiturak ere ez zituzten nolahi zabaltzen. Ikasi nahi zutenek ez zuten erraza. ◀

Erremontari kalea z/g  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 16 30  
**LENTZERIA**

**NEREA**

**LENTZERIA**  
'Pijamak, kamisoiak, bodiak, tangak...



MIKEL ARRUABARRENA ▶ FUTBOLARIA

# «Ez dut aurrera gehiegi begiratzen, ongietorria izango da datorrena»

Lehen Mailara iristea zaila dela eta berak egunekoarekin lanean jarraituko duela dio Athletic B-ko futbolariak

## INIGO ASENSIO

Athleticeko beheko taldeetan 6 urte badaramatza ere, 21 urte besterik ez ditu Mikel Arruabarrenak. Urteen joan-etorriarekin lortutako aurrerapausoek, maila gorenetik gertu kokatu dute tolosarra. Egundak, Bilbao Athleticean ari da lanean eta azken partidetan minutu gehiegi izaten ari ez den arren 2. B Mailako goleatzaileen sailkapenaren lehen postuari helduta jarraitzen du. Bere ibilbidearen hasieratik abiatu eta etorkizunerako planetaraino mintzatu da Arruabarrena HITZAREKIN.

**Bilbo aldera jotzea erabaki zenuenetik nola joan dira gauzak?**

Dagoeneko 6 urte pasatu dira; hiru Athleticeko jubenilean, bat Baskonian eta honekin bigarrena Bilbao Athleticean; gus-tura ari naiz oso.

**Urte hauetan posizio ezberdinetan aritzeko aukera izan duzu, ezta?**

## DENBORALDIA

«Nahiko irregularrak izaten ari gara, edozein irabaz dezakegu, baina baita edozeinen aurka galdu ere»

## KONTRATU AMAIERA

«Nik aurten amaitzen dut kontratua, berritzen didaten ikusi beharko da hemendik denboraldi amaierara»

## AURRERA BEGIRA

«Berritzeko aukera banu gogoz jarraituko nuke Athleticean, bestela talde bila hasi beharko nuke»

Bai, jubeniletan aurrelari edota erdi-punta bezala aritu nintzen, Baskonian berriz eskuin hegaleko erdilaria gisa eta joandako denboraldian, Bilbao Athleticean ia edonon: aurrelari, pibote, eskuin hegaleko atzelari zein erdilaria gisa...

**Eta horiek guztien artean, zeinetan sentitzen zara eroso-en?**

Dударik gabe aurrekaldean jokatuz, bai aurrelari eta bai bigarren aurrelari bezela.

**Gazte xamar izanik Bilbora jotzeko erabakia hartu zenuen. Zerk bultzatzen erabaki hori hartzeraz?**

Une hartan faktore ezberdinak izan behar ziren kontuan eta nire lagun Mikel Saizar bertan egoteak asko lagundu zidan erabakia hartzerakoan. Hala ere Athleticek erakutsi zuen interese handiagoak bultzatzen baitu. Hala ere Athleticek erakutsi zuen interese handiagoak bultzatzen baitu.

**Eta orduz geroztik bertan ikasten duzu?**

Bai, Batxilergoa bukatu eta goimailako formakuntza ziklo bat egin nuen eta ondoren enpresen administrazio eta zuzendaritza ikasten hasi nintzen. Futbola eta unibertsitatea ahal dudana moduan eramaten ditut.

**Beno eta egunekora itzuliz, zer moduz doa denboraldia?** Lehengo denboraldiarekin alderatuz postu finko batean jokatzen ari naiz eta hori eskertu egiten da. Horrez gain baloia sartzen ari da eta aurrelari batek golak lortzen dituen gauzak ondo doaz.

**Denboraldi honetan izaten ari zaren arrakastarekin planteamenduko egiten hasiko zinen. Nola ikusten duzu Lehenengo Mailara pasatzeko aukera?**

Zaila da oso. Mailak igotzen zozazen heinean enbutuaren puntatik gertuago zaude, guztiek ez dugu aurrera egiteko aukera izango. Nik gogor lan egiten jarraituko dut eta gauzak ondo egiten saiatu. Ez dut aurrera gehiegi begiratzen, ongieto-



HITZA

ria izango da datorrena, baina ez nau urduritzen.

**Athleticek duen euskal jokalarien politikak gauzak zertxobait erraztuko ditu ezta?** Bai dudarik gabe gauzek errazagoak dirudite horrela, baina hala ere Lehen Mailan jokatzea beti da zaila.

**Casas, Solabarrieta, Angulo... zurekin jokatutakoak dira, beraiek lehen taldean egonik gauzak gertuago ikusten al dira?**

Beti ikusten dituzu gauzak gertuago zurekin aritutako jendea lehen taldearekin lanean ikustean. Beraiegatik pozten naiz, harreman ona mantentzen dugu.

**Eta talde bezala, zer moduz doa denboraldia?**

Nahiko irregularrak izaten ari gara, edozein irabaz dezakegu baina baita edozeinen aurka galdu ere.

**Zein duzue denboraldiko helburua?**

Igoera kanporaketa jokatzeke helburuarekin hasi ginen eta horrek jarraitzen du gure helburua izaten. Bederatzigarrenak gara sailkapenean, baina

bigarrena 4 puntutara dauka; lanean jarraitu beharko dugu.

**Bigarren Mailan aritzea on izango litzateke futbolari gisa hazten jarraitzeko.**

Bai, maila ona da, asko ikasten delako eta Lehen Mailako beharretatik ere gertuago zaude. Bigarren B Mailatik Lehenengo Mailara ermito desberdintasun handia dagoela diote, Bigarren Mailan gauzak gertuago daude. Dena den nik aurten amaitzen dut kontratua, berritzen didaten ikusi beharko da hemendik denboraldi amaierara.

**Athleticean jarraitu nahiko zenuke edota giroz aldatzeko gogoak daukazu?**

Benetan gustura nago Athleticean. Kontratoa berritzeko aukera banu gogoz jarraituko nuke, bestela talde bila hasi beharko nuke.

**Eta talde bila hasiz gero, kanpora jotzeko arazorik izango al zenuke?**

Nik jolasten jarraitu nahi dut eta aukera hoberena etxetik kanpo agertzen bada, ez dut hara jotzeko arazorik izango.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun zerbitzua: 653212

**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 943 46 11 11

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aitzondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aitzondo zerbitzua:

693930

### GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

### KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Ttipi ttpa ald.: 948 631888

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Quetglas, M. A. Euskal

Herria 46 (Ibarra), 943 673274.

Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza)

112

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info

**Anoetaidea.** 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

**Leitzaldea.** 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko hitza.info

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Sukaldaria.** Tabernarako

sukaldaria behar da

asteburuetan lan egiteko.

943 69 19 33.

**Ume zaintzailea.** Bi ume

zaintzeko emakumea behar da.

615 72 73 84.

**Irakaslea.** Lenguaje eta

matematika klase partikularrak

emateko irakaslea behar da,

Batxilergoko azken mailan.

639 96 71 30.

## IBARRA ▶ FUTBOLA

Puntu bat lortu arren,  
jaitsiera postuetan darrai

Albelda talde errioxarraren aurka 2-2ko berdinketa lortu zuen Ibarrek igandean

## OLAIA ESKITXABEL

Ibarrek berdinketa besterik ezin izan zuen lortu pasa den larunbatean Albeldaren aurka Belabietan jokatuako partidari. Cesar Rocaren mutilek puntu bat lortu zuten arren, jaitsiera postuetan jarraitzen dute.

Norgehiagoka menperatzen hasi zen etxeko taldea, baina gol aukerarik lortu ezin izan ziren. Errioxarrak, berri, kontratake on bat egiteko zain zeuden; bederatzigarren minutuan izan zuten lehenengo aukera eta ondo aprobezatu zuten. Kontraeraso azkar bati esker iritsi zen, beraz, Albelda taldearen lehenengo gola. Gol horrek min handia egin zuen Ibarrek taldean; erritmoa jaitsi zuten, baina zale-tuen animo oihuei esker, indarberritu eta berriro kantuan nagusitzea lortu zuten. Hala ere, gola sartzeko aukerak lortzea ezinezkoa zitzaizkien. Gauzak horrela, eta 0-1 markagailuan, aldageletarako bigarren jarri ziren jokalariek.

Bigarren denbora hasi bezain laister, errioxarrak gola sartzear izan ziren. Ibarrek gola sartzeko saiakeran jarraitzen zuten, baina ez zuten aurkariaren meta pasatzeko lortzen.

## Azkenean, Ibarrek gola

Neurketa amaitzeko bederatzigaitz minutu falta zirela, Ibarrek taldeko Pradosek jaurtiketa

egin eta Karrerak, azti, lehenengo gola sartu zuen.

Berdinketa iristean zale-tuen poztasuna nabaria izan zen; ez zuen asko iraun, hala ere, Ibarrek taldearen golaren ondorengo jokaldian errioxarrek markagailuan aurrer hartzea lortu baitzuten: «Berdinketa lortu eta berehala aurreko egoerara bueltatu ginen», azaldu dute Ibarrek taldeko ordezkariek.

## Urduritasuna nagusi

Albelda taldekoek aurre hartu bezain laister, 20 segundoetara, Ibarrek bigarren berdinketa lortu zuen; Karrerak falta motz bat atera zuen eta Hautsik jaurtiketa indartsu batez bigarren gola sartu zuen gola, berdinketa lortuz.

«Minutu batean, hiru gol sartu zituzten; horrek ikusle-en oihuak areagotzea eta giroa berotzea ekarri zuen». Jokalarien artean ere urduritasuna zen nagusi.

Ibarrek jokalariek aurkariaren zonaldean mantendu ziren. Kantxan tentsio handia zegoen; bi taldeek bost falta zituzten eta partida amaitzeko zortzi minutu falta ziren. Edozer gauza gerta zitekeen, beraz.

Partidak aurrera egin ahala, Ibarrek jokalarien presioa areagotzen joan zen, baina golak sartzeko aukerak izan arren, berdinketarekin konformatu behar izan zuten jokalariek.

## BERROBI ▶ FRONTENIS TXAPELKETA

## Bederatzigarren txapela jarraian Niko Artola herritarrarentzat

Iradi-Lorenzo lasartearrak eta Rodrigo-Oliveira donostiarrak izan ziren XIII. edizioko irabazleak binakako mailetan



Gizonezkoen binakako mailako partidaren une bat. OLAlA ESKITXABEL

## I.GARCIA/O.ESKITXABEL

Frontenis Txapelketaren XIII. edizioko finalak jokatu ziren atzo Berrobiko frontoian. Guztira hiru mailatan lehiatu ziren txapelketan: binaka, gizonezkoetan Daniel Rodrigo eta Manuel Oliveira donostiarrak lortu zuten txapela eta bigarren postua Iñaki Ulazia eta Asier Imaz ibartarrak lortu zuten. Emakumezkoetan, binaka, Elisabet Iradi eta Elisabete Lorenzo lasartearrak izan ziren txapelidunak eta Naiara Onsalo eta Lierri Garziarena berastegiarrak txapelidunorde. Azkenik, gizonezkoetan, Niko Artola berrobitarrek bederatzigarren txapela jantzi zuten jarraian Mikel Goitia amezketarra gailendu ondoren.

Parte-hartzaile kopurua, urterokoari jarraituz, nahiko handia izan da. Jatorria ere, urtero legez, ez da eskualdera bakarrik mugatzen. Iruñea, Altsasu, Bergara edo Donostiatik etortzen dira, esaterako, frontenis-lariak. Gizonezko bikoteak izan dira izena gehien eman dutenak, guztira 58. Gizonezkoak ere, baina banaka, 37k eman dute izena. Emakumezkoek dagokionez lau bikoteak eman dute izena. Aipatzekoa da aurreten antolatzaileek asmoa zutela emakumezkoen mailan txapelketa bertan behera uztearena, baina azkenen lau bikoteak eman zuten izena. Bi-

txia da urtero kopuru berdinar ematen baitu izena, baina parte-hartzaileak beti ezberdinak izaten dira. Datorren urterako, antolatzaileek emakumezkoak animatu nahi dituzte bikote gehiagok parte har dezaten.

## Berrobitik Oriora?

Irabazleek kopak, txapelak eta Aralar Kirolak dendan gastatzeko 30 euroko txekak jaso zituzten sari gisa. Ondoren, maila guztietan aurreneko lau postuetan gelditu direnak eta antolatzaileak Asteasuko Iturri-ondo jatetxera abiatu ziren afaria egitera. Orioko festak dirrela eta, antolatzaileetako bapela agian, «buelatxo bat ematera edo», kostako herrira joango zirela ere komentatu zuten.

Lore sorta bat ere erakusten da sari banaketan, baina ez da irabazleentzat. Lehiaketaren hasieran antolatzaile lanetan jardun eta auto istripu batean hil zen Jon Ander Izagirreren omenez izaten da. Hurrengo egunotan, bere errautsak zabaldu ziren lekura eramaten dute lore sorta antolatzaileek.

Partida lehiatuak ikusi ziren atzokoan. Gizonezkoen binakako txapela jokatu zen lehendabizi. Oso partida gogorra izan zen. Bikote batek tantoa egin eta hurrengoan besteak berdindu egiten zuten. Horrela, bi ordu eman zituzten irabazleak

## EMAITZAK ▶

## Gizonezkoak, binaka.

Rodrigo-Oliveira 30 / Ulaziamaz 25.

## Emakumezkoak, binaka.

Iradi-Lorenzo 30 / Onselo Garziarena 17.

## Gizonezkoak, banaka. Niko Artola 30 / Mikel Goitia 26.

erabaki zen arte. Partidaren azken txanpan hobeto ibili ziren Rodrigo-Oliveira donostiarrak eta 30-25 irabazi zioten Ulaziamaz ibartarrei. Donostiako bikoteak txapela errepikatzen du, orain bi urte ere irabaztea lortu baitzuten.

Emakumezkoen binakako lehiari, erraz gailendu ziren Elisabet Iradi eta Elisabete Lorenzo lasartearrak. Partida hasieratik jarri ziren aurretik markagailuan eta hamar tantoko tartea izan zuten uneoro. Naiara Onsalo eta Lierri Garziarena berastegiarrak ezin izan zioten aurkariaren jokoari aurre egin eta azkenean 30-17 galdu zuten.

Azken partidari, Niko Artolak berretsi zuen binakako mailan bere nagusitasuna. Mikel Goitia, azken bost ediziotan izan du finalean aurkari eta atzokoan 27 tantotara iritsi zen, orain arte lortutako gehienak. Lortuko ote du hurrengo urtean hamargarren txapela berrobitarrek?

begi.tolosa  
bistan

TOLOSA BEGI-BISTAN

TOLOSALDEKO AIREZKO IRUDIAK

Aurkezpen irekia

Abenduak 9, osteguna, 20:00etan, Leidor aretoan.  
(Gonbidapenak Tolosako Kultur Etxean)



HERNIALDE ▶ ERAKUSKETA

# Bodegoiaren aldarrikapena

Luis Laskurain bergararraren margolanak daude ikusgai herriko ostatuan hilaren amaiera arte



Margolanaren konposaketari garrantzi handia ematen dio Luis Laskurainek. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Luis Laskurain (Bergara, 1951) margolariaren lanak daude ikusgai Hernialdeko herriko ostatuan. Adiskidetasunaren bidez sortu da erakusketa egiteko aukera. Izan ere, Laskurain eta ostatuak nagusia den Manu Jurrita elkar ezagutu dira eskiatzen, eta elur artean adostu zuten bergararraren koadroak Hernialden erakustea. «Ez da agian lekurik hobereena erakusketa bat egiteko, baina mezezi du ere ahalegina egitea herri txikietara margolanak ekartzeko. Margolarien helburuetako bat bere lanak erakustea da», azaltzen du Laskurainek.

Manu Iurritak erakusketa goraiatzeko du: «Orain arte izan ditugun lanetatik maila handienekoa da. Normaletik kanpo ateratzen da». Estiloari dagokionez, Laskurainek orokorrean «figuratiño errealista margotzen dut, hiperrealismo-

ra iritsi gabe». Denetik margotzen du, bodegoiak, paisaia, erretratuak... baina lekuarengatik aproposagoa iruditu zitzaion bodegoiak ekartzea. «Gainera, azkenaldian batez ere bodegoiak lantzen ari naiz, joku gehiago ematen didalako. Erretratu konprometitua da», dio margolariak. Bodegoiak berez gustatzen zaionean murgiltzeko bidea ematen dio: «Konposaketa, koloreen bitartez argia margotzea... Horretan saiatzen dira margolari gehien, argia islatzen».

Ez ditu, baina, bodegoiak margotzen soilik, aldarrikatu ere egiten ditu, beste margoketa figuratiñoak bezalaxe. «Bodegoiaren gaia, azken mende erdian gutxiestua izan da. Bodegoiak margotzen zituena ezin zen margolaria izan, eta nire ustez guztiz kontrakoa da: bodegoiak margotzen dituenak, marrazketa menperatu behar du, koloreak menperatu behar ditu, ofizio bat izan be-



Luis Laskurain. I. GARCIA

har du. Eta nire borroketako bat, margoketa figuratiñoa berrezartzean datza, hain modan egon den abstraktoaren aurrean», dio Laskurainek.

Guztira hamahiru lan ekarri ditu: «Lekuak horretarako ematen zuten, margolan bakoitzak bere espazioa izatea gustatzen zaidalako». Hilaren amaiera arte izango dira ikusgai eta hala nahi izanez gero, erosteko aukera ere badago.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

## 25. urteurrena betetzen du Zumbeltz elkarteak

Mezarekin hasi, kalejirarekin jarraitu eta bazkariarekin amaituko dute ospakizuna

O.ESKITXABEL

Zumbeltz elkartearen 25. urtemuga betetzen da gaur; hori dela-eta hainbat ekitaldi antolatatu dituzte.

Pasa den azaroaren 27an egin zituzten urteurrenako lehenengo ekitaldiak: kros herrikoia, bazkideen arteko mus txapellketa eta bertso-afari sorpresa.

Gaurko ere goizetik arratsaldera bitarteko egitaraua prestatu dute. 12:00etan, zendutako elkartekideen aldeko

meza izango da. Ondoren, Zentro tabernatik abiatuta, herriko kaleak zeharkatu dituen Kalejira Alaia egingo dute. Eta 14:00etan Zumbeltz elkartearen bertan bilduko dira bazkaltzeko. Bazkaria eta bazkal ondorena, Astiasaran anaiek alaituko dute.

Pasa den larunbatean bezala, gaur ere Villabonako Santiotako jaietako programak jarriko dituzte ikusgai Zumbeltz elkartearen. Egitarauki zaharrena 1935. urtekoa dela azaldu dute antolatzaileek.



## Denboraldiko lehenengo basurdea, zintzilik

ALDABA ▶ Ehiztari amorratuak dira Aldabako Intxur elkarteak kideak; denboraldiko lehen basurdea larunbatean bota zuten Orendain inguruan. 50 kilo inguruko emea. Denboraldia ez doa ehiztariak nahi bezala, hala ere. Elizondo tabernako balkoitik zintzilik jarri zuten basurdea kanalean irekita, sekatzeko. Botatakoarekin gustura, baina «basurde handiagoa» botatzeko esperantza dute ehiztariak. O.ESKITXABEL

hitza

lagunen txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

HITZAren harpidedun laguntzaile bazara, **ARGIAK** argitaratutako **NAIROBITARRA MUNDUKO IPUINAK (0-8 urteko haurrentzat)** bildumaren zozketan parte har dezakezu.

▶ DEITU ETA HAR EZAZU PARTE **ZOZKETAN**

943 65 56 95  
(11:00-13:00 / 16:00-19:00)



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 8a, asteazkena ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aizaketa, Adura, Abotzu, Alege, Aliza, Alzo, Amerieta, Aneta, Balamán, Belantza, Berastegi, Etxain, Herrialde, Ibarra, Inza, Lantzi, Leizorri, Lizartze, Omeñaca, Ome, Tolosa, Villatorra, Zuzuri  
besteriak: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurritza.  
Kultura Salla

FORU JAUZKARRIA  
TOLOSA

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

11

hotzena

7

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Ibarra.** Merkatu Txikirako material bilketa 17:00etatik 20:00etara Parrokiako lokaletan.

**Tolosa.** Maria Sortzez Garbiaren meza nagusia 11:00etan Santa Maria parrokiari, abesbatza, orkestra eta organoarekin.

**Tolosa.** Udal Txistulari Bandaren kontzertu berezia eguerdian. Udaletxeko arkupetan meza nagusiaren ondoren.

**Tolosa.** Kike Amonarriz eta Asiskoren *Euskara lardaskatzeko manierak* hitzaldia. 19:00etan Bonberenean.

**Tolosa.** *Tolosa begi-bistan* DVDaren aurkezpena. Bihar 20:00etan Leidor zineman.

**Tolosa.** Material birziklatuaz egindako I. Txobongilo Lehiaketa, Gaztegunek antolatuta. Gai librea. Lanak Kultur Etxeko Gazte Informazio Bulegoan aurkeztu behar dira. Epea, ostiralean, hilaren 10ean, amaitzen da.

**Tolosa.** Laskorain Ikastolan Batxilergo ikasketak 1999tik 2003ra bukatu zituzten ikasleen tituluak Orixe Institutuan jaso daitezke NAN erakutsita.

**Tolosa.** Haur Danborradan kantinerak aurkeztu nahi dituzten elkarteek bere argazkiak eraman behar dituzte lehebailehen Aiz Orratz-Veleta elkartera, bestela ez dira egitarauan sartuko.

### ERAKUSKETAK

**Hernalde.** Luis Laskorain. Koadroak Ostatuan.

**Tolosa.** Ana J. Ansorenaren zeramikak Lanbroan.

**Tolosa.** Anselmo Elizalderen koadroak Fronton kafetegian

**Tolosa.** Rufino de Tororen koadroan Sorron dendan.

**Villabona.** Maxola tabernan, Jone Telleriaren margolanak

### ZINEMA

**Ibarra.** *El misterio Galindez.* Bihar 21:45ean Gaztebixean (zine-klub).

**Tolosa.** *Alien vs. predator* Leidor zineman. 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean.

**Tolosa.** *Memories of murder.* Bihar 21:30an Leidor zineman (zine-klub).



Idi pareta eta segizioa baserritik Izaskungo ermitara abiatzen. J. SAIZAR



Zilarrezko ezkongaiak, harrituta eta pozik ustekabea ikusita. J. SAIZAR

# Garai batean bezala

**TOLOSA ▶** Zilarrezko ezteiak aspaldiko ohiturari jarraituz ospatu zituzten herenegun Izaskunen: arrea idi parearekin, garaiko jantziak, musika, dantza...



Bikotea gurdira igotzen, idi pareak ermitaraino eramateko, senitarteko eta lagunekin batera. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

**B**aserritik elizaraino idi pareak arrea eta ezkongaiak gurdian eraman zituen herenegun. Txistu eta trikitixa doinuak lagun zituztela. Senitartekoak eta lagunak garai bateko euskal jantziekin. Garai batean bezala.

Ez da broma, ez antzerkia edo zinema. Herenegun gertatu zen Izaskunen. Agirresarobe-Lizarra bikoteak bere ezkontzaren 25. urtemuga zuen eta ustekabeko opari hori egin nahi izan zioten senitartekoei eta lagunak. Beraiek pozik eta hunkituta. Emaztegaia «hau lotsa!» esanez behin eta berriz. Beste guztiak alai eta pozik. Inguruan ziren mendizale eta paseatzaileak harrituta.

Mezetan txalaparta, lagunak eskaintzak, seme-alaben *Agu-rra* dantza... izan zuten zilarrezko ezteiak bete zituztenek. Eta ondoren mahaira, noski, Izaskunen bertan. Umorea, dantza, musika eta alaitasuna ez zen faltako. Garai batean bezala. Edo hobeto oraindik!

# HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!